

Gender A B C

Lehen Hezkuntzarako eta
Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa



Glosario orokorra

GenderABC (ABC Generoa) proiektuaren koordinatzailea da



eta abian jarri dutenak dira



Argitalpen hau Europar Batasuneko Eskubideak, berdintasuna eta Herritartasuna Programak (2014-2020) finantzatu du.



Lehen Hezkuntzarako eta
Bigarren Hezkuntzarako
heziketa-programa

Glosario orokorra



Adingabekoekiko ustelkeria

Nahita burututako ekintzak dira haur batekin harreman emozional bat hasteko eta ezartzeko helburuarekin, hauraren inhibizioak gutxitu ditzan, haurarekin sexu-jarduerak prestatu ahal izateko.

Adostasuna

Aktiboki onartzea norbaitekin sexu-harremanak izatea. Adostasunaren bidez, norbaiti jakinarazten zaio harekin sexu-harremana nahi dela. Adostasunik gabeko sexu-harremana bortxaketa edo sexu-erasoa da.

Adostutako ezkontzak

Behartutako ezkontzak eta adostutako ezkontzak bereizi egin behar dira. Adostutako ezkontzen kasuan, ezkontideek oraindik aukera izan dezakete hitzarmena onartzeko edo ez. Ezkontza mota horiek sinonimoak izango dira baldin eta hertsadurak, gogorkeriak, indarkeriak edo mehatxuak adostasuna akasten badute. Hala ere, forma bi horiek sarritan bat egiten dute; izan ere, adostutako ezkontzak, sarritan, ezkontideak (edo, behintzat, ezkontide bien arteko bat) oraindik gazteak direnean gertatzen dira, eta litekeena da ezetz esaten ez ausartzea.

Ahalduntzea

Gizabanakoek, taldeek eta/edo komunitateek duten gaitasuna beren egoeraren gaineko kontrola izateko, boterea gauzatzeko eta beren helburu propioak lortzeko. Prozesu horren bidez, jendea, erakundeak eta komunitateak beren bizitza menderatzen hasten dira. Ahalduntzen direnak, sarritan, diskriminazio prozesu sozialen –generoan, arrazan, etnizitatean, erlijioan, edo desgaitasunean oinarritutako prozesuen– bidez erabakiak hartzeko prozesuetatik baztertu izan diren taldeetako kideak izaten dira. Ahalduntzea da marjinatutako jendearentzat oinarritzko aukerak eskuratzeko prozesua, bai jende horrek zuzenean eskuratzen dituenean, bai aukera horiek eskuratzeko ahalmena duten marjinatu gabekoek laguntza ematen dutenean. Era berean, aukera horiek ukatzeko saiakerak aktiboki zapuztea ere barne hartzen du.

Arau sozialak

Talde, komunitate edo kultura zehatz bateko jokabide-eredua, normal moduan onartzen dena eta gizabanakoak horrekin bat egitea onartzen duena. Produktu kultural moduan ikus daitezke (balioak, ohiturak eta tradizioak barne), eta gizabanakoen oinarritzko ezagutza adierazten dute, besteek egiten dutenaren eta egin beharko luketena pentsatzen dutenaren inguruan. Beste era batera esanda, jendeak beti ere betetzen ez duen jokabide-era bat da. “Arau” horiek bizitzan goiz barneratzen eta ikasten ditugu.

Asertibotasuna

Gizabanakoak beren interes onenen alde jarduteko gaitasuna izatea da, beren buruaren alde jarduteko gaitasuna izatea behar gabeko antsietaterik gabe, sentipen zintzoak erosotasunez adierazteko gaitasuna izatea eta norbere eskubideak adierazteko gaitasuna izatea besteen eskubideak ukatu gabe. Asertiboa izateak esan nahi du norbere eta beste batzuen eskubideen alde jardutea era lasaian eta positiboan, oldarkorra izan gabe, edo “gaitza” pasiboki onartu gabe. Gizabanako asertiboek beren iritziak azaldu ditzakete, besteak nahigabetu gabe edo beraiek nahigabetu gabe.



Behartutako ezkontza

Gutxienez ezkontideetako bat ezkontzera behartzen den ezkontzak dira. Lotura hori lege zibilaren, lege erlijiosoaren edo erritu tradizionalen arabera onar daiteke. Ezkontideentzat loteslea izateaz gain, beren familientzat eta komunitate osoarentzat orokorrean ere loteslea da. Ezkontideak indarkeria fisikoaren edo psikologikoaren edo indarkeria-mehatxuen bidez behartu daitezke. Ezkontza behartuaren definizioan ez da nahitako adostasunik existitzen, baina ezkontza behartuaren elementu komunek adostasuna, hertsadura eta gogorkeria barne hartzen dituzte. Ezkontza bat behartua izango da ezkontide bat bere borondatearen kontra ezkondu behar denean ere. Hori hala gerta daiteke bere familiaren edo komunitatearen aldetik zigorrak jasotzeko beldurra duelako.

Berrespena

Estatu batek burutzen duen prozesu bat da, zeinaren bidez tratatu zehatz bati atxikitzeko asmoa adierazten baitu.

Bikote barruko indarkeria

Une horretako edo aurreko bikoteak edo ezkontideak kalte fisikoa, sexuala edo psikologikoa egitea. Indarkeria-mota hori bikote heterosexualen edo sexu bereko bikoteen artean gerta daiteke, eta ez da sexu-intimitaterik izan behar. Emakumeak oldarkorrak izan daitezke beren gizonezko bikoteen aurka, eta indarkeria bai gizonezkoek osatutako bikoteen zein emakumezkoek osatutako bikoteen artean ere aurki daiteke; hala ere, luze eta zabal onartzen da mundu mailan bikote barruan gertatzen den indarkeriaren zama izugarri handia emakumeek jasaten dutela gizonen eskutik.

Bikote-indarkeria

Bikotekide batek nahita erabil ditzakeen taktikak dira, beste bikotekidearen gainean boterea eta kontrola irabazteko, mantentzeko edo berreskuratzeko, hitzordu batean edo harreman intimo batean, indarkeria fisikoa edo mehatxuak, hitzezko gehiegikeria, hertsadura emozionala/psikologikoa, sexu-gehiiegikeria, zelatatzea, isolatzea edo estrategia horien guztien konbinazioa barne.

Bortxaketa

Fisikoki behartutako edo beste era batera hertsatutako penetrazioa –nahiz eta arina izan– bulban edo uzkie, zakilaren, gorputzeko beste atal batzuen edo objektu baten bidez.

Bortxaketa-kultura

Bortxaketaren, sexu-erasoaren edo sexu-jazarpenaren normalizazioa da, inplizitua edo esplizitua izan daitekeena. Bortxaketa-kulturak adierazten du bortxaketa hainbeste hedatu dela, ezen normalizatzeko besteko puntura arte iritsi dela, gizartearen “kultura” bihurtzen dela, eta gure eguneroko bizitzetan gailentzen dela. Patriarkatuaren ondoriozko genero- eta sexu-ideia orokortuen emaitza da.

Bortxaketaren mitoak

Jarrerak eta sinesmenak dira, orokorrean gezurrak direnak, baina luze eta zabal eta etengabe mantentzen direnak, eta gizonek emakumeen aurka burutzen dituzten erasoak ukatzeko eta justifikatzeko balio dutenak.



Cyberbullying-a

Eduki testualak edo grafikoak erabiliz errepikatzen den jokabidea, norbaiten autoestimua edo izen ona kaltetzeko edo norbait beldurtzeko.



Emakumeen ahalgintza

Emakumeek beren bizitza propioaren gainean boterea eta kontrola irabazten duten eta aukera estrategikoak egiteko gaitasuna eskuratzen duten prozesua da.

Emakumeen Genitalen Mutilazioa (EGM)

“Emakumeen kanpoko genitalak partzialki edo erabat kentzeko prozedura guztiak, edo emakumeen genitalen organoei beste edozer kalte egitea, bai arrazoi kulturalengatik edo terapeutikoak ez diren beste arrazoi batzuegatik” [Osasunaren Mundu Erakundearen (WHO), Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funtsaren (UNICEF) eta Nazio Batuen Biztanleria Funtsaren (UNFPA) adierazpen bateratua, 1997]. Praktika ez mediko eta ez erlijioso arriskutsua, emakumeen genitalen organoak berariaz kentzen dituenak. Emakumeen kanpoko genital zati bat edo osoa ebakitzeko edo kentzeko erritualak.

Eskuarki, erdaintzaile tradizional –emakume– batek egiten du xafra bat erabiliz. EGM jaio ondorengo egunetatik nerabegarora arte egin daiteke, baita geroago ere. Estatu mailako zifrak eskuratu ahal izan diren herrialdeen erdian neska gehienak bost urte bete aurretik mutilatzen dituzte. Prozedurak nabarmen aldatzen dira etnizitatearen eta banakako praktikatzailen arabera. Praktika hori genero desberdintasunean errotuta dago, eta emakumeen sexualitatea kontrolatzea eta garbitasunaren, apaltasunaren eta edertasunaren gaineko ideiak kontrolatzea du helburu. Emakumeen osasun fisikoa eta emozionalari kalte egiten dio bizitza osorako, eta jaioberrien heriotza-tasa handitzen du.

EGM sigla (ingelesez FGM) WHOk, UNICEFek eta UNFPAk adostu zuen adierazpen bateratu batean 1997an, non mugimendu feministen eta giza eskubideen mugimenduen jarrerak islatu ziren; beste maila batean, “Mozketa” edo “Emakumeen zirkunzizio” moduan ere ezagutzen da. UNICEFen balioespenen arabera, mundu osoan 200 milioi emakumek baino gehiagok jasan behar izan du, eta urtero beste 3 milioi gehiagok hori jasateko arriskua dute. Ez da atzerriko arazo bat, edozer herrialdetan gerta daiteke (Europar Batasunean barne). EBn, eta beste hainbat herrialdetan, EGM legez kanpokoa da.

EGM motak

WHOk tipologia xehatu bat sortu zuen, eta lau mota nagusi identifikatu zituen: I-III arteko motak kentzen den azal kopuruaren arabera alda daitezke; eta IV. motak prozedura ezberdina deskribatzen ditu, urratu sinbolikoak barne.

I. mota: Klitoriaren erresekzio partzial edo erabatekoa (klitoridektomia).

II. mota: Klitoriaren eta ezpain txikien erresekzio partzial edo erabatekoa, ezpain handien eszisioarekin edo eszisiorik gabe (eszisioa).

III. mota: Baginako zuloaren estutzea ezpain txikien eta/edo ezpain handien erresekzioaren eta haien aposizioaren bitartez, zauriaren orbaina josteko, klitoriaren erresekzioarekin edo klitoriaren erresekziorik gabe (infibulazioa).

IV. mota: Kanpoko genitaletan xede ez-medikuekin aplikatutako gainerako prozedura kaltegarriak. Adibidez: gune genitalaren zulaketa, ebakidura, arraspatzea edo kauterizazioa.

Emakumeak ahalduntzea

Emakumeek beren bizitzaren gainean boterea eta kontrola irabazten duten eta aukera estrategikoak egiteko gaitasuna hartzen duten prozesua da. Emakumeen ahalduntzeak bost osagai ditu: emakumeak beren auto-balioaz zer neurritan jabetzen diren; aukerak izateko eta ezartzeko duten eskubidea; aukerak eta baliabideak eskuratzeko duten eskubidea; beren bizitza propioa kontrolatzeko botera izateko duten eskubidea, bai etxe barruan zein etxetik kanpo; eta maila nazionalen zein nazioarte mailan ere aldaketa sozialen norabideari eragiteko duten gaitasuna, ordena sozial eta ekonomiko bidezkoago bat sortu ahal izateko.

Enpatia

Pertsona batek duen gaitasuna beste pertsona baten gogo-aldartea ezagutzeko edo ulertzeko; sarritan, esaldi honekin adierazten da “beste norbaiten oinetakoak janzea”.

Entzute aktiboa ¹

Adierazpenak berak esan nahi duen moduan, aktiboki entzutea esan nahi du. Hau da, erabat kontzentratuta entzutea zer ari diren esaten, hizlariaren mezua pasiboki ‘entzun’ ordeztuz. Gaitasun hori praktikarekin eskuratu eta garatu daiteke. Zentzu guztiekin entzutea dakar, hitzezko zein hitzezkoak ez diren mezuei arreta jarritz.

Eskubide osoak

Honako eskubide hauek inoiz ez dira eragotziko, ezta gerra garaian edo larrialdi nazionalako egoeran ere.

Eskubideak

Eskubideen gutuna: eskuarki, baina ez nahitaez, idatzizko konstituzio bati erantsitako dokumentu bat da, herrialde bateko biztanle guztientzako zenbait eskubide bermatzen ditu eta auzitegiek gutun hori betearaztea agintzen dute.

Eskubide sozialak eta ekonomikoak: baldintza sozialen eta ekonomikoen inguruko eskubideak izatea, esaterako, osasun-arreta, etxebizitza, lana eta elikagaiak.

Eskubide zibilak eta politikoak: bizitza publikoan parte hartzearekin lotutako eskubideak, hala nola bidezko epaiketa bat, adierazpen-askatasuna eta torturarik eza izateko eskubideak. Batzuetan, ‘lehenengo belaunaldiko’ eskubideak deritze.

Giza eskubideak: gizaki guztiei dauzkaten eskubideak dira, edozein delarik arraza, sexua, nazionalitatea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa edo beste edozer estatus. Giza eskubideen barnean sartzen dira bizitzeko eta askatasuna izateko, eskubatasunetik eta torturatik aske izateko, iritzi- eta adierazpen-askatasuna izateko, lan egiteko eta hezkuntza izateko eskubideak, eta beste hainbat eskubide gehiago. Denek dituzte eskubide horiek, diskriminaziorik gabe.

Haurren eskubideak: hurrei dagozkien giza eskubideak. Nazio Batuen Haurren Eskubideen gaineko Konbentzioan (UNCRC) identifikatzen dira, eta eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta osasunaren eta kulturaren gainekoak jasotzen dira. Hona hemen haurraren definizioa: “hemezortzi urte baino gutxiagoko gizaki oro, baldin eta adin-nagusitasuna lehenago ezartzen ez bazaio, haurrari ezarri beharreko legearen arabera”.

Indargabetu ezin daitezkeen eskubideak: Eskubideen gutunaren edo Giza eskubideen hitzarmenaren arabera, indargabetu ezin daitezkeen eskubideak, ezta gerra edo larrialdi egoera batean ere. Bizitzeko eskubidea eta torturatua ez izateko eskubidea indargabetu ezin daitezkeen eskubideak dira.

¹ Irakurri gehiago hemen: <https://www.skillsyouneed.com/ips/active-listening.html>

Sexu-eskubideak: Estatu mailako legeetan, nazioarteko giza eskubideen dokumentuetan eta adostutako beste hainbat adierazpenetan onartutako giza eskubideak barne hartzen dituzte sexu-eskubideek. Adierazten dute pertsona guztiek, hertsadurarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe, honako hauek izateko eskubidea dutela:

- mailarik altueneko sexu-osasun irizpideak, sexu eta ugalketa arloko osasun-zerbitzuak eskuratzeko aukera barne.
- sexualitatearen inguruko informazioa bilatzea, jasotzea eta ematea
- sexualitatearen inguruko hezkuntza
- osotasun fisikoa errespetatzea
- bikotea aukeratzea
- sexualki aktiboa izatea edo ez izatea erabakitzea
- adostutako sexu-harremanak izatea
- adostutako ezkontza izatea
- haurrak izatea eta noiz izatea erabakitzea
- sexu-bizitza betegarria, segurua eta atsegingarria bilatzea

Emakumeak ahalduntzea

Ezkontza bat goiztiarra da, baldin eta ezkontideetako batek, gutxienez, 18 urte baino gutxiago baditu. Ezkontza goiztiarrak hainbat eragin ditu; esaterako: eskola goizegi uztea, haurdun goiz izatea, bizitza osorako menpekotasun-harremana izatea. Sarritan, etxeko indarkeriarekin batera gertatzen da.



Familia-plangintza

Norbaitek izaten duen haur kopurua eta haur horien jaiotzaren arteko tartearak kontrolatzeko praktika da, bereziki kontrazepzioen edo borondatezko esterilizazioaren bidez.



Generoa

Ikasitako emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun sozialei buruzko kontzeptua da. Ezberdintasun horiek aldatu egin daitezke denboran zehar, eta alde handiak izaten dira kultura baten barruan eta kulturen artean.

Genero-adierazpena

Pertsona batek munduari eta bere ingurukoei adierazten dien generoa jantzien, orrazkeraren edo itxuraren bidez.

Genero-arauak

Gizonak eta emakumeak izan eta jardun beharko luketenaren gaineko arauak. Horrek bizitza osorako genero-sozializazioak eta -estereotipoak ezartzen ditu. Beste era batera esanda, genero-arauak dira genero-identitatea osatzen duten irizpideak eta asmoak, gizarte, kultura eta komunitate espezifiko bat une zehatz batean definitzen duten irizpideen eta asmoen barruan.

Genero-berdintasuna

Esan nahi du gizakiak aske direla beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta beren aukerak egiteko, genero-rol zorrotzek ezarritako mugarik gabe, hau da, emakumeen eta gizonen jokabide, gogo eta premia ezberdinak berdintasunez izango direla kontuan, eta hala balioetsiko eta ahalbidetuko direla.

Genero botere-harremanak

Generoa dela-eta boterea banatzeko modua da gizartearen maila guztietan.

Genero-desparekotasunak

Emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunak dira baliabideak, estatusa eta ongizatea eskuratzeko orduan. Desberdintasun horiek, eskuarki, gizonen aldekoak izaten dira, eta legearen, justiziaren eta arau sozialen bidez instituzionalizatuta daude.

Genero-estereotipoak

Gizonen eta emakumeen aldetik gizarte-egoera zehatz batean espero direnen gainerako orokortzeak. Emakumeen eta gizonen arteko aldean, haien gaitasunen, ahalmen psikologikoen, asmoen eta jokabideen gainerako ideiak gehiegi sinplifikatzea da. Orokortze horietan oinarritutako judizioek denbora eta energia aurrezten dute ustez; hala ere, horien bidez ez da gizabanakoen ezaugarrien eta gaitasunen aberastasuna hautematen.

Genero-hizkuntza adikorra

Genero-berdintasunean oinarritutako hizkera erabiltzea idatziz eta ahoz, emakumeak eta gizonak eta genero-sistema bitarra osatzen ez dutenak ikusarazteko eta haiengana balio, duintasun, integritate eta errespetu parekoa merezi duten pertsonen moduan zuzentzeko.

Genero-identitatea

Pertsona batek bere burua gizon edo emakume moduan, edo bien moduan edo bien arteko edozein modutan definitzeko dagokio. Pertsona baten barruko joera emozionala eta psikologikoa da, gizona, emakumea edo biak izateko edo bien arteko edozein izateko. Kontzeptu hori hertsiki lotuta dago genero-rolaren eta genero-adierazpenaren kontzeptuekin; izan ere, kontzeptu horiek genero-identitatea islatzen duten nortasunaren kanpoko adierazpenen moduan definitzen dira.

Generoan oinarritutako diskriminazioa

Neskak eta emakumeak ezberdin tratatzea zuzenean edo zeharka mutilen eta gizonen aldean, horietako edozer talderi beren eskubideak erabiltzea eragozteko moduan. Nahiz eta generoan oinarritutako diskriminazioa emakumeei zuzenduta dagoen batez ere, gizonen zuzenduta ere izan daiteke. Diskriminazioa zuzeneko edo zeharkakoa izan daiteke. Nesken eta emakumeen aurkako diskriminazio zuzena, eskuarki, errazagoa izaten da aintzatesteko, diskriminazio hori begi bistakoa izaten baita. Hala ere, nesken eta emakumeen aurkako zeharkako diskriminazioa zaila izan daiteke ikusteko. Itxura batean inpartzialak diruditen egoeretan gerta daiteke, non neskei eta emakumeei tratamendu desparekoa ematen zaien.

Generoan oinarritutako indarkeria

Pertsona baten gogoaren aurka burutzen den eta genero-arauetan eta botere-harreman desparekoetan oinarritzen den edozer ekintza da. Indarkeria- eta hertsadura-mehatxuak barne hartzen ditu. Mehatxu horiek fisikoak, emozionalak, psikologikoak edo sexualak izan daitezke, eta baliabideak edo zerbitzuak eskuratzea ukatzeko forma har dezakete. Kaltea eragiten diete emakumeei, neskei, gizonen eta mutilei.

Genero-rolak

Pertsona batek ikasten dituen rolak edo jokabideak, bere generoarentzat egokitzen hartzen direnak eta kultura-arauek zehazten dituztenak. Generoarekin berarekin gertatzen den moduan, genero-rolak eboluzionatu egin dezakete denboran zehar, batez ere emakumeen ahalduzaren eta maskulinitateen eraldaketaren bidez.



Hertsadura

Norbait konbentzitzeko ekintza edo praktika indarraren edo mehatxuen bidez zerbait egin dezan.

Heteroaraua

Heterosexualitatea araua dela sinestea. Ulertzen duenaren arabera, sexu eta ezkontzazko harreman egokienak (edo egoki bakarrak) aurkako sexua duten jendearen artekoak dira. "Heteroarauaren" ikuspegiaren arabera, sexu biologikoak, sexualitateak, genero-identitateak eta gero-rolak bat egin behar dute. Heteroaraua homofobiarekin lotzen da sarritan.

Hertsadura

Indar maila espektro oso bat barne har dezake. Indar fisikoaz gain, honako hauek ere gerta daitezke: larderia psikologikoa, xantaia edo beste hainbat mehatxu; esaterako, kalte fisikoak izateko, lan batetik kaleratua izateko edo lortu nahi zen lan bat ez eskuratzeko mehatxua. Egoera hori gerta daiteke eraso egin dioten pertsona adostasuna emateko gai ez denean; esaterako, mozkortuta, drogen eraginpean edo lo dagoenean, edo egoera ulertzeko gai ez denean.



Identitatea

Norbere izaeraren edo pertsonatasunaren zentzia da, norbera zer motatako pertsona den. Identitatea finkoak edo esleitutakoak moduan ulertzeko joera izan arren, soziologoek argi eta garbi esaten dutenaren arabera, identitatea fluidoak eta aldakorak dira. Ohitura, ezaugarri eta ideia arruntak kultura-identitate partekatu baten adierazle garbiak izan daitezke; baina funtsean, identitatea ezberdintasunen arabera ezartzen da, hau da, talde baten parte garena sentitzen dugu, eta talde batek bere burua talde moduan definitzen du, beste taldeen eta kulturen aldean dituen ezberdintasunak hautemanez eta nabarmenduz.

Indarkeria-zikloa

Teoria bat da, deskribatzen duenak gehiegikeriazko harreman batek zer nolako faseak dituen gertakari biolento bat izan arte eta horrek zer nolako jarraipena izaten duen.

Interseksionalitatea

Tresna analitikoa da, balio duena aztertzeko, ulertzeko eta erantzuteko nola gurutzatzen diren sexua eta generoa beste ezaugarri/identitate pertsonal batzuekin, eta interseksio horiek nola laguntzen duten diskriminazio-esperientzia bakarrak izaten.



Komunikazioa

“Komunikazioa gizakien arteko interakzioa da..., hau da, informazioa... ondorioa edo eragina transferitzea da... baita elkar ulertzea ere... komunitatea... kultura... eta abar” (Robert T. Craig). Azken finean, hitzezkoak eta hitzezkoak ez diren mezuak transmititzeko prozesua da. Bidaltzaile batekin, hartzaile batekin eta komunikazio-kanal batekin osatzen da. Mezuak transmititzeko prozesuan, mezuaren argitasuna eragotzi edo distortsionatu egin daiteke “oztopoak” moduan ezagutzen diren horiekin.

Konbentzioa

Praktika politikorako arauak dira. Arau horiek bete behar dituztenek arau horiek lotesle moduan ulertzen dituzte, nahiz eta legeak ez izan, auzitegiek agintzen ez baitituzte. Giza eskubideen tratatu nagusiak ‘Konbentzio’ deitzen dira.

Konfiantza

Sinestea norbait ona eta zintzoa dela zurekin eta ez dizula kalterik egingo, edota zerbait segurua eta fidagarria dela sinestea.



Lege arina

Estatu batean obligazio teknikoki lotesleak sortzen ez dituen legea da; aitzitik, estandarrek ezartzen ditu, Estatu baten jokabideari ustez eragin behar diotenak eta jokabide hori moldatu behar dutenak.

Lege gogorra

Obligazio lotesleak sortzen dituen legea edo legeria.



Maitasun erromantikoa

Mendebaldeko kulturak maitasunaren gainean duen kontzeptua. Ebidentziak iradokitzen duenaren arabera, maitasuna emozio unibertsala da, jende gehienak esperimendatzeko duena; baina modu ezberdinetan azaltzen da, kulturak eragina sortzen duelako jendeak maitasunaz dituen kontzeptuen gainean, baita jendeak harreman erromantikoetan sentitzen, pentsatzen eta jarduten duen moduaren gainean ere.


Mendeku-pornografia

Teknologiaren bidezko sexu-indarkeria mota bat da, non biluzik eta jarrera esplizituki sexualean agertzen den norbaiten argazkiak eta/edo bideoak zabaltzen dituen egileak, haren baimenik gabe.



Nerabeen arteko indarkeria-harremana

Mutil-lagun eta neska-lagun nerabeen gaineko kontzeptu tradizionala, sexualki aktibo izan daitezkeenak edo ez, non gehiegikeriazko jokabideak erabiltzen diren bikotea manipulatzeko, azpiratzeko eta abusatzeko. Nerabeen arteko harreman-indarkeria gerta daiteke, baita ere, hitzordu bat edo hainbat izan dituzten nerabeek, nahiz eta harreman formalik ez izan. Nerabeen arteko indarkeria-harremana elkarrekin bizi ez diren harremanen artean gertatzen da eskuarki, eta asko alda daiteke intimitatearen mailaren, rol-itxaropenen eta iraupenaren arabera, esaterako, honako kasu hauetan gerta daiteke: planifikatu gabeko behin-behineko topaketa bateko bikotea; noizbehinkako topaketetako sexu-bikotea; edo eskuarki elkarrekin sozializatzen diren edo ateratzen diren talde bateko kideak.



Ohore-delitua

Ohorearen izenean burututako indarkeria da familiaren ohorea moduan ulertzen dena mantentzeko edo berreskuratzeko erabiltzen den indarkeria mota. Gizarte oso patriarkaletan, familia-ohorea familiako emakumeekin lotzen da zuzenean. Familiako emakume batek bere inguruan agintzen duten arauen aurka jarduten badu, familia osoaren ohoreari egiten dio kalte. Zurrumurruak ere kaltegarriak izan daitezke. Gizonek dute familiaren ohorea zaintzeko ardura, eta ondorioz, familiako emakumeak kontrolatzekoa. Hori hertsaduraren, presio fisikoaren edo psikologikoaren edo baita ezkontza behartuen edo ohorezko heriotzen bidez ere egin daiteke.



Patriarkatua

Sistema sozial bat da, zeinean gizonek lehen mailako boterea daukaten mendean, eta lidergo politikoetan, agintaritza moralean, pribilegio sozialean eta pobreziaren kontrolean gailentzen diren. Historikoki, patriarkatua hainbat kultura ezberdinen antolakuntza sozialean, legalean, politikoan, erlijiosoan eta ekonomikoan azaldu izan da. Beren konstituzio eta lege propioen bidez esplizituki definitzen ez diren arren, gizarte garaikide gehienak, praktikan, patriarkalak dira.

Pentsamendu kritikoa

Norbere iritzia eratzeko gaitasuna hainbat iturri erabiliz, gai konplexuez eta zail ez diren konplexuan pentsatzeko gaitasuna. Pentsamendu kritikoak gure adimena irekitzen du, estereotipoen eta manipulatzeko edozer saiakeraren aurrean. Errealitate sozialen, politikoen eta ekonomikoen eta botere-harremanen ulermena sakonago garatu ahal izateko tresna da.



Sexismoa hizkuntzan

Sexismoa eta genero-diskriminazioa gauzatzeko eta errepikatzeko bitartekorik indartsuenetako bat da hizkuntza. Genero-estereotipoen edukia –zeinaren arabera emakumeek ezaugarri komunitatekoak/amultsuak azaldu beharko bailituzkete, eta gizonek ezaugarri aktiboak/gaitasunezkoak–eguneroko komunikazio-aukeretan azaltzen da.

Sexualitatea

“... gizakiaren bizitzako funtsezko ezaugarri moduan honako hauek hartzen dira: sexua, genero-identitateak eta rolak, sexu-orientazioa, erotismoa, plazera, intimitatea eta ugalketa. Sexualitatea honako hauen bidez adierazten da: pentsamenduak, fantasiak, desioak, sinesmenak, jarrerak, balioak, jokabideak, praktikak, rolak eta harremanak. Sexualitatea dimentsio horiek guztiak barne hartu ditzake; hala ere, ez dira horiek denak beti esperimentatzen edo adierazten. Sexualitatea honako faktore hauen arteko loturaren eraginpean dago: faktore biologikoak, psikologikoak, sozialak, ekonomikoak, politikoak, kulturalak, legalak, historikoak, erlijiosoak eta espiritualak.

Sexu-erasoa

Dimentsio anitzekoa da. Izan ere, forma fisikoa izan dezake, esaterako, ondo hartzen ez diren ukimenak, besarkadak edo musuak; edo ahozko ekintzak ere izan daitezke, esaterako, iruzkin edo txiste sexualak; eta hitzezkoak ez diren formak ere izan daitezke, esaterako, ziber-erasoak.

Sexu- eta ugalketa-osasuna

“... sexuaren inguruko ongizate fisikoa, emozionala, metala eta soziala; ez da soilik gaixotasunik, disfuntziorik edo ondoezik ez izatea. Osasun sexuala izateko, sexualitatea eta sexu-harremanak errespetuz hartu behar dira, eta era berean, sexu-esperientzia atsegingarriak eta seguruak, hertsadurarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabekoak izateko aukera izan behar da. Osasun sexuala lortzeko eta mantentzeko, pertsona guztien sexu-eskubideak errespetatu, babestu eta bete behar dira”.

Sexu-gauza bihurtzea

Pertsona bat –normalean emakume bat– sexu-objektu bat bihurtzeko, eta beste norbaiten plazer sexualari erantzuten diona moduan adierazteko edo tratatzeko prozesua. Emakumeak gizaki autonomo izatetik sexu-objektuak izatera gutxiesteko modu bat ere bada.

Sexu-hedapena

Sexu izaerako argazki, bideo edo testu digitalak bidaltzea bertan agertzen den pertsonaren baimenik gabe.

Sexu-indarkeria

Sexu-ekintza bat lortzeko edozer sexu-ekintza edo saiakera da. Nahi gabeko sexu-iruzkinak edo adierazpenak, edo trafikatzeko ekintzak, edo pertsona baten sexualitatearen aurka beste era batera zuzendutako ekintzak adierazten ditu, hertsadura erabiliz, beste norbaiten bidez, biktimarekiko duen harremana kontuan hartu gabe, edozer tokitan egin daiteke, etxean eta lanean barne, baina horietara mugatu gabe. Honako hauek barne hartzen dira, nahiz eta horietara mugatzen ez diren: bortxaketa ezkontza barruan edo aldizkako harremanetan; bortxaketa ezezagunen eskuetan; nahi gabeko sexu-adierazpenak edo sexu-erasoak (eskolan, lanean, kalean eta abar); bortxaketa sistematikoa gatazka armatuetan zehar; sexu-abusuak mentalki edo fisikoki desgaitutako pertsonen; haurren bortxaketa eta sexu-abusua; ezkontza behartua; kontrazepzioa erabiltzeko eskubidea edo beste neurri batzuk hartzea ukatzea sexu-transmisiozko gaixotasunen aurrean babesteko; abortu eta esterilizazio behartuak; emakumeen sexu-integritatearen aurkako ekintza biolentoak, esaterako, emakumeen genitalen mutilazioa edo birjintasunaren nahitaezko ikuskaritzak; sexu-esplotazioa.

Sexu-ikuspuntu positiboa

Onartzen du pertsona guztiak izaki sexualak direla eta sexu-eskubideak dituztela, edozein delarik adina, generoa, erlijioa, sexu-orientazioa, GIB egoera edo (des)gaitasuna.

Sexu-orientazioa

Pertsona baten identitate sexuala da, erakartzen duenbeste pertsonaren generoaren arabera (hau da, gizonak, emakumeak, biek edo bietako ezeinek erakartzen duenaren arabera). Heterosexuala, homosexuala (gay/lesbiana), bisexuala, pansexuala edo asexuala –edo auto-sexuala, skoliksexuala, erdi-sexuala eta abar– izatea. Sexu-orientazio pila bat daude. Ez da genero-identitatearen gauza bera, zeinaren oinarria baita pertsona bat zer generorekin identifikatzen den.

Sexting-a

Mezu eta/edo argazki edo bideo sexualki esplizituak beste lagun batzuei mugikorren bidez bidaltzeko ekintza; eskuarki bidaltzaileak berak ekoizten ditu. Kontrolatzeko estrategia moduan erabil daiteke, harreman kaltegarri eta gehiegikeriazko batean.

Sextortzioa

Sexu-esplotazio modu bat, non pertsona bati xantaia egiten zaion, Interneten sexting bidez partekatu duen eta biluzik agertzen den bere irudi baten bidez. Horren ondorioz, biktima hertsatu egiten dute, xantaia egin dionarekin sexua izan dezan, edo pornografia edo beste ekintzak batzuk egin ditzan.



Talde-bortxaketa

Egile bik edo gehiagok norbait bortxatzea da.

Talde-kohesioa

Gizarte-prozesu bat da, non hainbat taldetako kideek elkarren artean eragiten duten; taldeetako kide horiek elkarren artean harreman estuagoak izatera bultzatzen duten indarra da talde-kohesioa.

Tradizioa

Belaunaldi batetik beste batera pasa den eta luzaroan ezarrita izan den ohitura edo sinesmena.

Transgeneroa

(edo trans laburdura). Termino biltzailea da, sexu bateko genitalak izan eta beste sexuarekin lotutako genero-identitatea izan ditzaketen gizabanakoentzat. Esaterako, zakil batekin jaio den baina emakume moduan identifikatzen den pertsona. "Gizon transgenero" bat gizon moduan identifikatzen da, eta "emakume transgeneroa" emakume moduan identifikatzen da.

Transgeneroaren terminologia

Trabestia: emakumeekin lotutako makillajea, arropak eta osagarriak erabiltzen dituzten gizonak dira, eta entretenimendurako ez diren genero-adierazpenak egiten dituzte. Gehienetan, gizon horiek heterosexuak dira.

Drag Queen: ikuskizunak egiteko emakumeak moduan janzten diren gizonak izaten dira. Gehienetan, gizon horiek gay dira.

FTM (edo F2M): emakume izatetik gizon izateko trantsizioan ari den pertsona trans bat.

Generoa baieztatzeko kirurgia: batzuetan, eta gaizki, "sexua aldatzeko ebakuntza" deitzen da eta oraintsu "sexua berrezartzeko kirurgia" deitzen da; norbaiten sexua kirurgia bidez fisikoki aldatzea da. Eskuarki, hormona-tratamenduak egiten dira.

Hormona-terapia: hormona sintetikoak hartzen dira hainbat gauzari eragiteko, esaterako, gorputzaren formari, ilea hasteko erduei eta bigarren mailako sexu-ezaugarriei.

Intersex: gizonen eta emakumeen ezaugarri tipiko genetikoak, hormonalak eta/edo fisikoak aldi berean dituzten pertsonak dira; hortaz, ez da argi geratzen horien sexu biologikoa zein den, hau da, gizona edo emakumea den. Izan ere, beren gorputzak ezberdin moduan ikusten dira, haur eta heldu intersexak estigmatizatu egiten dira sarritan eta giza eskubideen urraketa asko ezartzen zaie, osasun eta integritate fisikoa izateko, torturatik eta tratu txarretatik aske izateko, eta berdintasuna eta diskriminaziorik eza izateko eskubideen urraketak barne.

MTF (edo M2F): gizon izatetik emakume izateko trantsizioan ari den pertsona trans bat.

Non-op: kirurgiarik izan nahi ez duen pertsona transgenero bat.

Pansexualitatea (edo Omnisexualitatea): jendearenganako erakarpen sexuala, erromantikoa edo emozionala, beren sexu- edo genero-identitatea alde batera utzita. Bisexualitatearen adar bat edo berezko sexu-orientazio bat izan daiteke. Izan ere, pansexualak irekita daude hertsiki gizon edo emakume moduan identifikatzen ez den jendearekin harremanak izateko; beraz, pansexualitateak genero bitarra baztertzen du, eta hitz hori "bisexualitatea" baino termino barneratzaileagozat hartzen da. Ez da polimaitasuna, zeinak esan nahi baitu harreman intimoa bat baino gehiago izatea aldi berean, esku hartzen duten guztien ezaugarriekin eta baimenarekin.

Post-op: kirurgia izan duen pertsona transgenero bat.

Pre-op: bere gorputza aldatzeko kirurgiarik izan ez duen pertsona transgenero bat, nahiz eta nahiko lukeen. Adibidez, "Alexis izeneko 16 urteko gaztea, FTM pre-op nerabe trans moduan identifikatzen dena".

Queer: genero eta/edo sexu-erakarpena modu fluidoan eta ez era bitar moduan ikusten duen jendea da. "Genero-queer" hitzak adierazten du gizonen eta emakumeen identitateekin eta rolek hertsiki bat egiten ez duen jendea. Horiek beren burua ez dute argi azaltzen gizon edo emakume moduan; aitzitik, generorik gabeko gizabanako moduan azaltzen dira, zeinaren identitatea denboran zehar mugitu eta aldatu daitekeen. Era beran, "queer" izen barneratzaile moduan ere erabili daiteke, LGBTIQ komunitateko parte den nornahi deskribatzeko.

Sexua: norbait anatomiaren arabera sailkatzeko modua da; normalean "gizona" edo "emakumea" terminoetara mugatzen da. Hurrei gizonaren edo emakumearen sexua esleitzen zaie jaiotzean, batez ere beren kanpoko anatomiaren arabera (hau da, zakila edo bulba izatearen arabera). Esleipen hori beren jaiotza-ziurtagirian idazten da. Sailkapen tradizional hori alde batera utzita, pertsona baten sexua, izan ere, honako ezaugarri hauek osatzen dute: gorputzeko hainbat ezaugarri, esaterako, kromosomek, hormonek, barruko eta kanpoko ugalketa-organoek eta bigarren mailako sexu-ezaugarriek. Sexua ez da bitarra.

Transexuala: izen hori iraungita dago, eta adierazten ditu jaiotzan esleitutako generoaren aldean beste sexu batekin identifikatzen diren gizabanakoak. Pertsona horrek gizona izatetik emakume izateko edo alderantzizko trantsizioa egin nahi du. Termino hori hainbat arrazoiengatik baztertu da, besteak beste, dirudienez, batez ere gorputzean oinarritzen delako, genero-identitatean oinarritu ordez.

Trantsizio-bidea: Jaiotzako sexua aldatzea ez da urrats bakarreko prozedura; aitzitik, prozedura konplexua da, denbora-epe luzean gertatzen dena. Trantsizioak honako urrats pertsonal, mediko eta legal hauetako batzuk edo horiek denak barne hartu ditzake: norbere familiari, lagunei eta lankideei esatea; izen ezberdina eta izenordain berriak erabiltzea; ezberdin janztea; norbere izena eta/edo sexua aldatzea lege-dokumentuetan; hormona-terapia egitea; eta agian (nahiz eta ez beti), kirurgia mota bat edo gehiago egitea. Trantsizioan egin daitekeen urratsen kopurua aldatu egiten da batzuen eta besteen artean. Saihestu “sexu-aldaketa” esaldia.



Ziber-jazarpena

Emakumeek izan ditzaketen sexu-jazarpenak; honako hauek gerta daitezke:

- nahi gabeko e-posta edo SMS mezu sexualki iraingarri eta esplizituak
- harrera iraingarri ezegokiak sare sozialetako gunetan, esaterako, Facebooken, edo Interneten txateatzeko gunetan

Ziber-zelatatzea

Sarean norbaiti buruzko informazioa zelatatzea eta metatzea edo horrekin obsesionatzea eta komunikatzea haren borondatearen kontra. Taktika hori sarritan erabiltzen eta aztertzen da bikotearen indarkeria pertsonalaren luzapen moduan.

Zisgeneroa

Hitz horrekin adierazten dira beren nortasunaren eta generoaren gaineko irizpenak jaiotzean izan zuten sexuarekin bat egiten duten pertsonak. Adibidez, emakume zisgenero bat da bere burua emakume moduan identifikatzen duena eta jaiotzean ere emakume moduan sailkatu zutena. “Zisgeneroa” “Transgeneroa”-ren kontrakoa da.

Iturriak:

- Associació Candela y EdPACT, *Proyecto de Educacion para el Desarrollo*, sarean eskuragarri hemen: <https://www.adolescenciasycuzerpos.org/>
- *Convention on the Rights of the Child*, G.A. res. 44/25, annex, 44 U.N. GAOR Sup. (49. zk.) non: 167, U.N. Dok. A/44/49 (1989), indarrean jarri zen: 1990eko irailaren 2an
- Europako Kontseilua, *Glossary on Youth*, 2018
- Europako Batzordea, 1998
- Europako Batzordea, 2006
- Genero Berdintasunaren Europako Institutua
- Genero Berdintasunaren Europako Institutua, *Empowerment of women*, online eskuragarri hemen: <https://eige.europa.eu/thesaurus/terms/1102>
- Genero Berdintasunaren Europako Institutua, *Gender power relation*, online eskuragarri hemen: <https://eige.europa.eu/thesaurus/terms/1200>
- Genero Berdintasunaren Europako Institutua, *Intersectionality*, online eskuragarri hemen: <https://eige.europa.eu/thesaurus/terms/1263>
- Europako Parlamentua – Herriarren Eskubideen eta Gai Konstituzionalen Politiken Departamendua, *Cyber violence and hate speech on line against women - Women's rights & Gender Equality*, 2018, online eskuragarri hemen: [http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2018/604979/IPOL_STU\(2018\)604979_EN.pdf](http://www.europarl.europa.eu/RegData/etudes/STUD/2018/604979/IPOL_STU(2018)604979_EN.pdf)
- Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia, *Violence against women: an EU-wide survey on violence against women across the 28 Members States of the European Union*, 2014, online eskuragarri hemen: <https://fra.europa.eu/en/publication/2014/violence-against-women-eu-wide-survey-main-results-report>
- International Association of Internet Hotlines, *Online grooming by Paedophiles*, online eskuragarri hemen: <http://www.inhope.org/gns/internet-concerns/overview-of-the-problem/online-grooming.aspx>
- International Planned Parenthood Federation (IPPF), *Deliver + Enable Toolkit: Scaling-up comprehensive sexuality education (CSE)*, online eskuragarri hemen: <https://www.ippf.org/sites/default/files/2018-03/IPPF%20Deliver%20and%20Enable%20-%20CSE%20Toolkit.pdf>

Iturriak:

- Intersex Human Rights Australia, *What is intersex?*, online eskuragarri hemen: <https://ihra.org.au/18106/what-is-intersex/>
- Lonsway & Fitzgerald, *Rape Myths: In Review*, HEMEN "Psychology of women quarterly", 1994, 18. zk. 133- 164 or.
- Oxford dictionary
- Oxford Research Encyclopaedia
- Parent 24, *Understanding rape culture and teaching your children about it*, 15.10.2018, online eskuragarri hemen: <https://www.parent24.com/Family/Parenting/understanding-rape-culture-and-teaching-your-children-about-it-20181010>
- Planned Parenthood, *Sexual Consent*, online eskuragarri hemen: <https://www.plannedparenthood.org/learn/sex-and-relationships/sexual-consent>
- Psychology, *Group Cohesion Definition*, online eskuragarri hemen: <https://psychology.iresearchnet.com/social-psychology/group/group-cohesion/>
- Sexting, *Glosario*, online eskuragarri hemen: <https://www.sexting.es/glosario/>
- Sexual violence research initiatives, *Sexual Violence – Definitions*, online eskuragarri hemen: <http://www.svri.org/research-methods/definitions>
- Nazio Batuetako Biztanleriaren Informazioaren Sarea – UNFPA, *Guidelines on Women's Empowerment for the UN Resident Coordinator System*, online eskuragarri hemen: <https://www.un.org/popin/unfpa/taskforce/guide/iatfwemp.gdl.html>
- Osasunaren Mundu Erakundea, *Defining sexual health Report of a technical consultation on sexual health*, 28–31, 2002ko urtarrila, Geneva; online eskuragarri hemen: https://www.who.int/reproductivehealth/publications/sexual_health/defining_sexual_health.pdf
- Osasunaren Mundu Erakundea, *Sexual Violence – World Report on Violence and Health*, 2002, online eskuragarri hemen: https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/42495/9241545615_eng.pdf?sequence=1
- Osasunaren Mundu Erakundea, *Sexual Violence: Understanding and addressing violence against women*, 2012, online eskuragarri hemen: https://apps.who.int/iris/bitstream/handle/10665/77434/WHO_RHR_12.37_eng.pdf?sequence=1

Gender ABC proiektuaren

MODULUEN ZERRENDA

Dokumentu laguntzaileak

- 01 Arriskuen ebaluazioa
- 02 Metodologia orokorra
- 03 Glosario orokorra

Moduluen Lehen Hezkuntzarako heziketa

- 01 Gorputzaren segurtasuna / Emakumeen genitalen mutilazioa
- 02 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 03 Generoan oinarritutako indarkeria
- 04 Generoaren arau sozialak eta estereotipoak
- 05 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 06 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea

Moduluen Bigarren Hezkuntzarako heziketa

- 01 Ziber-indarkeria
- 02 Ezkontza goiztiarra eta behartua
- 03 Ahalduntzea eta komunikazio-gaitasunak
- 04 Emakumeen genitalen mutilazioa
- 05 Genero-indarkeria
- 06 Generoko gizarte-arauak eta estereotipoak
- 07 Talde-kohesioa
- 08 Giza eskubideak eta haurren eskubideak
- 09 Bikote barruko indarkeria
- 10 Sexu-orientazioa eta genero-identitatea
- 11 Sexu- eta ugalketa-osasuna eta eskubideak
- 12 Sexu-indarkeria



Ek egindako proiektua:



End FGM
EUROPEAN NETWORK



ASSOCIAÇÃO PARA O PLANEAMENTO DA FAMÍLIA



Europar Batasunak
kofinantzatutako proiektua